

begirada

79

otsaila
2021













Photo by Orlando Imperatore, used under CC BY-NC-SA 2.0 / Cropped from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU JAURRIEN
DIPUTAZIOTEKIN ELKARLAN
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
JUSTITIA Y POLÍTICA SOCIAL

EAE-N NAZIOARTEKO BABESA ESKATU DUTEN PERTSONAK

Begirada honen bidez, bi auzitan jarri dugu arreta: asilo-eskubidean, eta EAEn nazioarteko babesa eskatu duten pertsonengan. Horretarako, Barne Ministerioak emandako datuak eta CEAREk argitaratutako urteko txostenak erabili ditugu.

Azken bosturtekoan, nabarmen egin du gora EAEn asiloa eskatu duten pertsonen kopuruak. Hala ere, orain arte eskura ditugun datuak aurkezten ditu begirada honek, eta datu horiek ez dute islatzen gaur egungo pandemia-egoerak erkidegoan jasotako eskaera-kopuruan eduki ahal izan duen eragina.

1 Asilo-eskubidea eta nazioarteko babeserako mekanismoak

Zenbait pertsona ezin dira itzuli beren jaiotze-herrialdera edo bizi izandako herrialdera, haien bizitza arriskuan legokeelako han. Hain zuzen, pertsona horiei emandako laguntzari esaten diogu nazioarteko babesak. Arrisku horren kausak askotarikoak izan daitezke; besteak beste, gatazka armatuak edo arrazoi politikoaren edo ideologikoen ondoriozko jazarpena. Beraz, nazioarteko babesak barnean biltzen ditu, besteak beste, bai asilo-eskubidea eta bai babes subsidiarioa eta aberriabeen babesak.

Asilo-eskubidea errefuxiatuei ematen zaien babesak da. Errefuxiatuen Estatutuari buruzko konbentzioaren arabera, pertsona bat errefuxiatua da, baldin eta: “arrazak-, erlijio-, naziotasun-arrazoiengatik edota gizarte-talde zehatz bateko kide izateagatik edo iritzi politikoengatik pertsegitua izango delako beldurraren ondorioz, bere herrialdetik kanpo badago (naziotasuna duen herrialdetik kanpo), edota aipatu beldurrengatik, herrialde horren babesak jaso ezin badu edo ez badu nahi; edota naziotasunik izan gabe, ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo baldin badago, eta gertaera horien ondorioz ezin bada hara itzuli edo, delako beldurrengatik, ez badu herrialde horretara itzuli nahi”. (Nazio Batuen Erakundea, 1951: 2).

Asilo-eskubideak ematen duen babesaz gain, atzerritar jatorriko pertsonak —EBko herritarrek izan ezik— beste mekanismo bat ere baliatu dezakete nazioarteko babes hori eskuratzeko: **babes subsidiarioa**. Mekanismo horrek honako hauei ematen die babesak: errefuxiatutzat hartzeko baldintzak bete gabe ere, jaio edo bizi ziren herrialdera itzuliz gero kalte larriak —heriotza-zigorra, torturatuak izateko arriskua, mehatxu larriak eta abar— jasateko arriskua dutela pentsatzeko arrazoi sendoak dituzten pertsona guztiei. Espainiako kasuan, Asilo Eskubidea eta Babes Subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legean agertzen da arauturik babes subsidiarioa.

Bestalde, **aberrigabeen** eskubideak (estatu bakar batek ere, bere legediarekin bat etorriz, nazionaltzat hartzen ez dituen pertsonak, ACNUR, 2014), Aberriabeen Estatutuari buruzko 1954ko Konbentzioan jasota daude.

Mekanismo horiez harago, Espainian bizi diren atzerritar jatorriko pertsonak **aldi baterako bizileku-baimena** eska dezakete **arrazoi humanitarioak direla-eta salbuespeneko inguruabarrak daudenean**. Salbuespeneko bizileku-baimen bat da, besteak beste, arrazakeriako, antisemitismoko edo genero-indarkeriako delituen biktimetzat. Bizileku-baimen hori 557/2011 Errege Dekretuan arauturik dago.

2 Nazioarteko babesaren EAE

1. grafikoa


Asilo-eskabideen bilakaera EAE eta Estatuan, absolutuak, 2006-2020

2019. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoak —aurrerantzean, EAE— 4.827 asilo-eskabide erregistratu zituen guztira, hau da, estatu mailan aurkeztutako eskaera guztien —2019an, 118.446— % 4,1. Lehenengo grafikoa ikus daitekeenez, asilo-eskabideen kopurua hazten joan da etengabe EAE, eta azken lau urteotan nabarmen handitu da. Hala, hiru fase argi bereiz ditzakegu.

Lehen oreka-fase batean (2006-2014), jasotako eskabide kopurua egonkor samar mantendu zen: 100 eskabide inguru urtean EAEren kasuan.

2015etik aurrera joera hori aldatzen hasi zen, eta asilo-eskabideen kopurua hazten, apal samar hasieran, eta askoz nabarmenago azken urteotan. Hain zuzen, gorakadarik handiena 2018 eta 2019 artean izan zen: eskaera berriak % 112,5 igo ziren Estatuan, eta % 202,4 EAEren kasuan.

Barne Ministerioak argitaratutako 2020ko datuen aurrerapenaren arabera, asilo-eskaeren kopuruak behera egin du, pandemiaren egungo testuinguruaren ondorioz. EAEren behin betiko datuen faltan, Estatuan 30.000 eskaera inguru gutxiago egin dira 2019an baino.




Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Asilo-eskabide horiek lurralde historikoetan nola banatzen diren aztertzen badugu —2. grafikoa—, ikusiko dugu Bizkaia dela eskabide gehien jaso duen herrialdea, 3.395, zehazki. Datu hori testuinguruan jarrita, 2019an EAEn izan ziren 4.827 eskabideetatik % 70,3 Bizkaian erregistratu zen.

Bizkaiaren ondoren, 2019an Araban jaso ziren eskabide gehien, 892 zehazki (guztizkoaren % 18,5). Gipuzkoan, berriz, 540 eskabide jaso ziren, guztizkoaren % 11,2.

2. grafikoa

Asilo-eskabideen banaketa lurralde historikoen arabera, absolutuak, 2019




Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Asilo-eskabidea egin zuten pertsonen profilari dagokionez —3. grafikoa—, Espainian 2020an asiloa eskatu zuten pertsonen % 53,0 gizonak izan ziren, eta % 47,0 emakumeak. Beraz, Estatura iristen diren asilo-eskaerak pixka bat maskulinizatuta daudela ikusten da.

Jatorri-eremuaren arabera —4. grafikoa—, EAEn asiloa eskatzen duten gehienak Latinoamerikatik datoz. 2019an asiloa eskatu zuten guztietatik % 85,2 eremu hartako herrialderen batekoa zen jatorriz. Latinoamerikako asilo-eskatzaileen datuetatik oso urrun daude zerrendan hurrengoak: % 6,4 Europar Batasunaz kanpoko herrialderen batekoa zen, eta % 5,3 Saharaz hegoaldeko Afrikakoa.

3. grafikoa


Asilo-eskabideen banaketa Estatuan, sexuaren arabera, %, 2020



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

4. grafikoa

Asilo-eskabideen banaketa EAEn, jatorrizko eremuaren arabera, %, 2019



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

1. taula

Asilo-eskabideen bilakaera EAEn, jatorri-eremuen arabera, absolutuak, 2006-2019

	EBz kanpoko Europa	Magreb	Saharaz hegoaldeko Afrika	Latinoamerika	Asia	Gainerakoak	Guztira
2006	5	12	48	10	4	1	80
2007	2	11	69	6	4	-	92
2008	3	7	84	6	8	-	108
2009	8	4	88	7	10	-	117
2010	7	2	60	2	8	1	80
2011	4	7	80	8	15	2	116
2012	5	5	44	5	19	-	78
2013	-	1	46	4	11	-	62
2014	7	4	54	9	25	-	99
2015	42	3	61	28	29	-	163
2016	77	19	108	239	57	-	500
2017	124	20	113	650	60	3	970
2018	150	23	126	1.260	36	1	1.596
2019	310	71	255	4.115	72	4	4.827

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

1. taulan ikus daiteke zer-nolako bilakaera izan duen EAEn asiloa eskatu duten pertsonen kopuruak, jatorriaren arabera. Ikus daitekeenez, 2006 eta 2014 urteen artean, Euskadin asiloa eskatu zuten pertsona gehienak Afrikako herrialderen batean jaiotakoak ziren, zehazki Saharaz hegoaldeko Afrikan jaiotakoak.

2015ean, Europar Batasunetik kanpoko Europako herrialdeetatik zetozten pertsonen eskabideak nabarmen handitu ziren (35 eskabide gehiago aurreko urtean baino), baita Latinoamerikatik iritsitako pertsonen eskaerak ere.

Azken urteotan, babesak eskatu duten Latinoamerikako pertsonen kopuruak goranzko joera horri eutsi dio, eta horren erakusle, datu hau: 2015ean 28 eskabide izan ziren, eta 2019an, 4.115. Era berean, nahiz eta Latinoamerikako eskabideen neurritz gaineko hazkunde horrek erabat itzalean utzi beste tokietakoak, EBz kanpoko Europako herrialdeetako eskabideak eta Saharaz hegoaldekoak ere hazten joan dira.

Jatorrizko herrialdearen arabera —2. taula—, 2019an asiloa eskatu zuten pertsona gehienak Venezuelakoak (1.426), Kolonbiakoak (1.224) eta Nikaraguakoak (998) ziren jatorriz. Hain zuzen, EAEn izan ziren asilo-eskabide guztietatik % 75,6 hiru herrialde horietakoren bateko pertsonena izan zen. Horien ondoren, Honduras (220) eta Georgia (134) izan ziren jatorri jendetsuenak.

Lurralde historikoen arabera ere Latinoamerikako hiru herrialde horietakoak izan ziren asilo-eskabide gehien egin zuten atzerritarrak. Nolanahi ere, lurralde batetik bestera aldeak daude ehunekoetan. Araban, kolonbiarrak izan ziren eskatzaile gehienak (% 44,4); Bizkaian, venezuelarrak (% 31), eta Gipuzkoan, nikaraguarrak (% 37,4).

2. taula

Asilo-eskabideak EAEn eta lurralde historikoetan, jatorrizko herrialdearen arabera, absolutuak eta % bertikalak, 2019

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa					
	K	%	K	%	K	%	K	%				
1	Venezuela	1.426	29,5	Kolonbia	396	44,4	Venezuela	1.052	31,0	Nikaragua	202	37,4
2	Kolonbia	1.224	25,4	Venezuela	260	29,1	Kolonbia	753	22,2	Venezuela	114	21,1
3	Nikaragua	998	20,7	Nikaragua	43	4,8	Nikaragua	753	22,2	Kolonbia	75	13,9
4	Honduras	220	4,6	Peru	31	3,5	Honduras	141	4,2	Honduras	56	10,4
5	Georgia	134	2,8	Georgia	25	2,8	Georgia	107	3,2	Ukraina	16	3,0
6	Albania	92	1,9	Honduras	23	2,6	Albania	90	2,7	Ginea	12	2,2
7	Peru	81	1,7	Pakistan	19	2,1	Nigeria	54	1,6	Pakistan	9	1,7
8	El Salvador	63	1,3	Brasil	17	1,9	El Salvador	47	1,4	Peru	6	1,1
9	Ukraina	63	1,3	Ukraina	15	1,7	Peru	44	1,3	Aljeria	5	0,9
10	Nigeria	58	1,2	Maroko	14	1,6	Ginea	36	1,1	El Salvador	5	0,9
	Gainerakoak	468	9,7	Gainerakoak	49	5,5	Gainerakoak	318	9,4	Gainerakoak	40	7,4
	Guztira	4.827	100,0	Guztira	892	100,0	Guztira	3.395	100,0	Guztira	540	100,0

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Asilo-eskatzailen jatorrizko herrialdeekin jarraituz, 5. grafikoak erakusten du zein izan den bost jatorri nagusien bilakaera azken urteotan. Hala, datuek agerian uzten dute jatorrietako bakoitzak bilakaera desberdina izan duela, irteera bultzatu zuten arrazoiak direla medio.

Venezuelako herritarren kasuan, herrialdeak bizi duen egoera ekonomiko eta politikoaren ondorioz (CEAR, 2017), agerikoa da 2015. urtetik aurrera oso azkar hazi direla asilo-eskabideak, eta joerak gorantz jarraitzen duela gaur egunera arte. Horrela, 2015 eta 2019 artean, 1.400 gehiago izan dira asiloa eskatu duten venezuelarrak.

Kolonbiaren kasuan, eta neurri txikiagoan Hondurasen kasuan, babesgabetasuneko eta indarkeriako giroak (ACNUR, 2017; 2019) eragin du 2016. urteaz geroztik eskabideak modu esanguratsuan haztea.


Eta, era berean, 2018ko altxaldiez geroztik Nikaraguak bizi duen krisi sozio-politikoak (CEAR, 2019) berekin ekarri du herrialde hartako pertsonen eskabideak ere nabarmen handitzea. Hala, urtebete eskasean, Nikaraguako herritarren eskaerak hamar aldiz handiagoak dira: 94 izan ziren 2018an, eta 998, 2019an.

Bestalde, Georgiako asilo-eskatzailak 2017an hasi ziren iristen, Europar Batasunak eta Georgiak bisak liberalizatzeko onartutako akordioaren ondotik¹ (European Migration Network, 2019).

¹ Georgiako asilo-eskatzailen iritsiera ez da EAEko edo Espainiako fenomeno bat soilik. European Migration Network erakundeak adierazi duenez (2019), Europar Batasun osoan gertatu da hori.

5. grafikoa

Jatorri nagusietako asilo-eskabideen bilakaera EAEn, absolutuak, 2013-2019



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.


Asilo-eskabideen ebazpenei dagokienez –6. grafikoa–, jatorri nagusietako herritarrek 2019an Espainian aurkeztutako eskabide gehienak ukatuak izan ziren. Hala, Kolonbia, Nikaragua, Honduras eta Georgiako herritarrek aurkeztutako eskabideen % 75 ez zen onartua izan.

Onartutako eskabideen artean, Hondurasko herritarrek izan zituzten aldeko ebazpen gehien: eskaera guztien % 19,3, eta, ondoren, Nikaraguak (% 15,9). Bi jatorri horietatik oso urrun, eskabidea egin zuten georgiarren % 1,3k eta kolonbiarren % 0,9k soilik jaso zuten aldeko ebazpena.

Deigarria da Venezuelako kasua; izan ere, eskatzaileen % 0,1ek soilik lortu zuen errefuxiatu-estatutua, baina, aldiz, % 99,4k lortu zuen babesak arrazoi humanitarioengatik. Horren arrazoia da Asilo eta Babeseko Ministerio-arteko Batzordeak (CIAR) 2019ko martxoaren 5ean eginiko proposamena: nazioarteko babes-eskabidea ukatu ondoren, bizileku-baimena eskatu zuten Venezuelako nazionalitateko pertsonen arrazoi humanitarioengatik baimen hori ematea, hain zuzen (CIAR, 2019). Beraz, nahiz eta Venezuelako herritarrei ukatutako asilo-eskabideen kopurua nabarmen txikiagoa izan beste jatorri batzuetakoa baino, venezuelar gehien-gehienek bizileku-baimena lortu zuten arrazoi humanitarioengatik. 557/2011 Dekretuak arautzen du prozedura hori.

6. grafikoa

Eskabideen ebazpena Estatu mailan, jatorriaren arabera, %, 2019



Iturria: Geuk egina, CEAREN eta Eurostaten datuak oinarri hartuta.


3 Euskal herritarren pertzepzioa asiloa eskatu duten pertsonetikiko

Ikuspegiren Barometroaren arabera, euskal herritar gehienek begi onez ikusten dute errefuxiatuei laguntzea —7. grafikoa—. 2020an, EAeko herritarren % 32,2k adierazi zuen ados zegoela pertsona horiei inolako mugarik gabe harrera egitearekin. Ehuneko horri gehitu behar zaio, gainera, herritarren % 62,7ren iritziz harrera egin behar zaiela, baina baldintza batzuekin: dela egiaz jazarriak direla egiaztatuz (% 41,5), dela kuoten araberako banaketa bat eginez (% 21,2).

8. grafikoa ikus dezakegunez, 2008. urteaz geroztik euskal herritarren gehiengo zabala (% 70etik gora) errefuxiatuei harrera egitearen alde dago, baldintzarik gabe edo baldintza batzuk jarrita. 2015. urteaz geroztik portzentajeak gora egin du, eta hamar pertsonatik zortzi baino gehiago harrera egitearen aldekoak dira; 2020an, EAeko biztanle guztien % 94,9 agertu da alde.

7. grafikoa


Euskal herritarren pertzepzioa asilo-eskatzaileri harrera egiteari buruz, %, 2020



Iturria: Ikuspegi.

8. grafikoa

Asilo-eskatzaileri harrera egitearen alde dauden euskal herritarren portzentajearen bilakaera, %, 2008-2020



Iturria: Ikuspegi.

Ondorioak

- 2015. urteaz geroztik nabarmen egin du gora EAEn asiloa eskatu duten pertsonen kopuruak; 2019an, 4.827 lagunek egin zuten eskera. Hala ere, eta 2020ko behin betiko datuen faltan, Estatuko datuen arabera, eskaeren kopuruak nabarmen egingo du behera, pandemiaren egungo testuinguruaren ondorioz.
- Bizkaia da asilo-eskabide gehien jasotzen duen lurralde historikoa —eskaera guztien % 70,3 zehazki—, eta ondoren datoz Araba eta Gipuzkoa.
- Sexuaren arabera, gehixeago dira asiloa eskatu duten gizonezkoak emakumezkoak baino; izan ere, jasotako eskabide guztietatik % 53,0 izan zen gizonezkoek aurkeztua.
- 2019an erregistratutako asilo-eskabide guztietatik gehien-gehienak (% 85,2) Latinoamerikako jatorriko herritarrek eginak izan ziren. Eta horien artean, batez ere Venezuela, Kolonbia eta Nikaraguako herritarrek eginak.
- Estatu mailako asilo-eskabideen ebazpenei erreparatuta, gehien-gehienak ukatuak izan ziren. Hala ere, asiloa eskatu zuten Venezuelako herritar ia guztiek, nahiz eta kontrako ebazpena jaso, azkenean bizileku-baimena lortu zuten arrazoi humanitarioengatik.
- Euskal gizarteak (% 94,9) begi onez ikusten du asiloa eskatzen duten pertsonen arreta eta laguntza ematea.

EAE 2019	4.827 asilo-eskaera	Orain arteko daturik altuena
% 85,2 Latinoamerikakoa da jatorriz	Jatorri nagusiak Venezuela, Kolonbia eta Nikaragua	

Ebazpenak	
Jatorri nagusietako eskabide gehienetan ezezko erantzuna	Venezuela baimenen % 99,4 arrazoi humanitarioengatik

Bibliografia

- ACNUR (2014). *Convención sobre el Estatuto de los Apátridas*. <https://www.acnur.org/5b43cea54.pdf>
- (2017). *SITUACIÓN COLOMBIA: Colombia, Ecuador y Venezuela*. <https://www.acnur.org/5b05af144.pdf>
- (2019). *Submission by the United Nations High Commissioner for Refugees For the Office of the High Commissioner for Human Rights' Compilation Report. Universal Periodic Review: 3rd Cycle, 36th Session HONDURAS*. <https://www.refworld.org/country,,UNHCR,,HND,,5e174937328,0.html>
- Asilo eta Babeseko Ministerio-arteko Batzordea (2019). *NOTA SOBRE LA PROPUESTA DE CONCESIÓN DE UNA AUTORIZACIÓN DE RESIDENCIA POR RAZONES HUMANITARIAS 5 de marzo de 2019*. <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2019/03/OAR-Nota-RRHH-febrero.pdf>
- CEAR (2017). *INFORME 2017: Las personas refugiadas en España y Europa*. <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2017/06/Informe-Anual-CEAR-2017.pdf>
- (2019). *INFORME 2019: Las personas refugiadas en España y Europa*. https://www.cear.es/wp-content/uploads/2019/07/INFORME_CEAR_2019.pdf
- (2020). *INFORME 2020: Las personas refugiadas en España y Europa*. https://www.cear.es/wp-content/uploads/2020/06/Informe-Anual_CEAR_2020_.pdf
- European Migration Network (2019). *Impact of Visa Liberalisation on Countries of Destination: Synthesis Report for the EMN Study March 2019*. https://ec.europa.eu/home-affairs/sites/homeaffairs/files/00_eu_visa_liberalisation_2019_synthesis_report_en_0.pdf
- Nazio Batuen Erakundea (1951). *Convención sobre el Estatuto de los Refugiados*. <https://www.refworld.org/es/docid/47160e532.html>

Legeak:

12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen.

557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa; Errege Dekretu honen bidez onartu egiten da 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerriarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa.